

Osinberdearen ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Ibilbidea Aralar Natura Parkearen barruan dago. Horrek beste baliabide ugariren artean ondasun berezia pilatzen du: ura. Natura balio handiko ekosistema batzuk dituen eremuaren protagonista da ura. Ibaiak, lurrazaleko errekek, eta hainbat iturri eta iturburu dauzka gure ibilbideak.

Landaredian, artadi kantauriarra, haritzia, elorriak, pagadiak, haginak eta haltzak dira nagusi. Sai arrea (*Gyps fulvus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) edo (*Aquila chrysaetos*) arrano beltzaz gain, bestelako espezieak ugaltzea ahalbidetzen du uraren aratzak, hala nola ur-zozoa

(*Cinclus cinclus*) edo balio handiko ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*), edo orain urte gutxi Euskal Herrian guztiz desagertu den arte muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*).



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,5 km



Ordu 1



Hurbileko herria:
Zaldibia



Ibaia:
Zaldibia



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



461 m



169 m



336 m



44 m



Osinberdearen ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Osinberde ur-jauzia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko koadrantean dago, Goierri eskualdeko Zaldibia udalerriko lurretan, Aralar mendilerroaren Natura Parkean.

A-1 Donostia-Gasteiz autobidean Ordizia/Itsasondo/Zaldibia irteera hartuko dugu.

Ordizia zeharkatuta, (GI-2133) errepidean jarraituko dugu Zaldibiara iritsi arte.

Bilbotik joanda, A-8a hartuko dugu Donostiarantz, eta (Eibar) Maltzagan AP-1ean sartuko gara Bergarako irteera ikusi arte.

Ondoren, GI-632a hartuko dugu, Antzuola, Zumarraga, Ormaiztegi eta Beasain pasatuta, Ordiziara heldu arte.

Handik Zaldibiarako errepidean sartuko gara. Zaldibiatik (GI-3781)a hartuko dugu Arkakaraino (Uraren interpretazio-etxea eta arrantza-eskola).

Arkakatik mendi-errepide estu bat hartuko dugu Osinberderaino.

Baliza bat aurkituko dugu norabidea adierazteko.

Bat koma bost bat kilometro eginda, errepidearen amaieran bat koma bi bat kilometroko bidexkari jarraituko diogu basoan zehar, urak zizelatutako paisaia zoragarria gozatzeko.

Ezkerretara utziko dugu borda bat eta bidean aurrera erreka baten ibia igaro behar dugu.


Euri-sasoian, kontu handi zegin beharko dugu. Igaro eta gero, aurrera egin eta eskuinetara joko dugu Osinberdetik datorren Zaldibia edo Amundarain errekararekin topo egin arte.

Hormigoizko ibi batez igaroko dugu erreka, eta bidexka magikoari jarraituko diogu, ur fresko eta gardenen xuxurlak laguntzen digularik.

Azken tarte horretatik, Aralar mendilerroko akuiferotik ura isurtzen duten zundaketa batzuk ikusiko ditugu.

Aurrera egingo dugu Hidrometeorologia-estazioraino, eta, hondoan, Osinberden amiltzen diren uren handitasuna izango dugu.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina euri-sasoien ondorenean goza dezakegu ongien ur-jauziaren edertasuna.



Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:




Wikiloc

Osinberdearen ur-jauzia



Osinberdearen ur-jauzia



Osinberdearen ur-jauzia

